

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Esparza kontseilariak banaketa-kateei eta harakin-gremioei lankidetzan eskatu die Nafarroako abeltzaintzako sektoreari laguntzeko

Bere "kezka" helarazi die sektore hori pasatzen ari den zailtasunengatik

Martes, 12 de febrero de 2013

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza-k Nafarroako elikagaien banaketa-talde nagusiei eta harakin-gremioari bere "kezka" azaldu die abeltzaintzako sektorea pasatzen ari den zailtasunengatik, eta haien parte-hartzea eskatu du irtenbideak bilatzeko.



Esparza kontseilaria hitz egiten banaketa-kateekin eta harakin-gremioekin egindako bilkuran.

Eroski Taldea, Leclerc, El Corte Inglés, Mercadona eta UVESCOren ordezkariekin eta harakin-gremioekin gaur egindako bilkuran helarazi die, abeltzaintzako azpisektorea eta bereziki, esnetarako behi-aziendak, haragitarako behi-aziendak eta ardiarenak egoera "oso konplikatu pasatzen ari direla, neurri handi batean animalien elikadurarako lehengaien kostuan azken urtean izandako igoeragatik, eta abeltzainek igoera hori ezin diote saltzen dituzten produktuen prezioari eragin".

Esparzak azaldu du Nafarroako abeltzaintza-jarduera "arloan ekonomikotik haratago doala", eta lurraldearekin duen "inplikazioaz" hitz egin du. Alde horretatik, Esparzak defendatu du Foru Komunitateak bere burua azaltzen duela "herrien izatearen bidez eta, aldi berean, haiek beren garapena nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan oinarritzen direla".

Europako nahiz Estatuko mailan jarduketak burutzen ari badira ere, berriki onartu den elikagaien katearen funtzionamendua hobetzeko neurrien Lege Proiektua, esaterako –Nafarroak babestu duena– edo esnearen prezioaren arloan gaur bertan sinatu den hitzarmena, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak irizten du, autonomia-erkidegoen mailan "tokiko abeltzainen laguntza eman zitekeela beren produktuak merkaturatzeko hobekuntzan", eta puntu horretan Esparza kontseilariak banaketa-kateen eta saltoki txikien parte-hartzea eskatu du.

Alde horretatik, José Javier Esparzak bilkurara joandakoei eskatu die, beren iritziz, "egungo ekoizpen eta merkaturatzeko sistemaren konfigurazioan sar daitezkeen" hobekuntzak helarazteko, era horretan Nafarroako tokiko ekoizleei gehiago erosteko. Halaber, kontseilariak "ahalegin bat eskatu die Nafarroako produktuak erosteko orduan", erositako bolumenean nahiz ekoizleei ordaintzen dizkieten erosketa nahiz prezioaren baldintzetan, eta Nafarroako produktuak sustatzeko kanpainak areagotzearen aldeko apustua egin du, kontsumitzaileari azaltzeko "tokiko produktuen kontsumoaren eta gure herrien landa-garapenari eustearen artean zer lotura daquen".